



Gipuzkoako Bazkondeak balioekin lan egingo du 14 eta 18 urte bitarteko 500 gazte baino gehiagorekin

- Ekimen hau ENPRESTATZEN proiektuaren barnean gauzatuko da.
- ENPRESTATZEN unibertsitatez kanpoko ikasleei zuzendua dago eta baloreen bitartez lurraldearen errealitate sozio-ekonomikoaren ezagutza sustatzea du helburu.
- Jardunaldiak hiru orduz luzatzen dira eta Gipuzkoako Bazkundean bertan burutzen dira.

Donostia, 2013ko apirilaren 15a. ENPRESTATZEN Gipuzkoako Bazkondeak garatutako ekimena da, unibertsitatez kanpoko ikasleei zuzendua dago, zentru publiko eta pribatutakoei (14 eta 18 urte). DBHko, Batxilergoko eta Erdi Mailako formakuntzako zikloko ikasleek enpresekin izango duten lehen harremana izango da.

ENPRESTATZEN proiektuaren helburua ikasleen artean inguruko errealitate sozio-ekonomiko zein den islatzea da. Ekintza parte-hartzaile desberdinen bitartez. 14 eta 16 urteko ikasleek enpresa eta lan arloaren egungo errealitatea ezagutuko dute, herrialde baten benetazko errealitatea sozio-ekonomikoa islatzen den gunea baita hori. 16 eta 18 urteko gazteei zuzendutako jardunaldietan berriz, globalizazioa eta motibazioa bezalako kontzeptuak argituko dira, talde lana, ekintzailetasuna, lan orientazioa, ikasketak...



Apirilan zehar ENPRESTATZEN ekimenean 300 ikasleek baino gehiago parte hartuko dute eta maiatza eta ekaina bitartean kopuru honek gora egingo duela aurreikusten da. Momentuz 5 jardunaldi egin dira eta beste 12 itxi dira. Jardunaldiak Gipuzkoako Bazkundean egiten dira eta hiru orduz enpresa eta lan munduko errealitatea erakusten da, ikusentzunezko euskarriak erabiliz eta talde lana bultzatuz ikasleen parte hartzearekin.

Gazteak eta Enpresak

Mundua egunetik egunera geroz eta globalizatuagoa dago, horregatik beharrezkoa da erakunde publikoak, erakunde pribatuak eta kontzientzia soziala duten enpresa pribatuak elkarrekin lan egitea gure gazteen baloreak eta dituzten gaitasun desberdinak bultzatzeko errealitate ekonomiko soziala zein den adieraziz.

Gaur egun, gure gazteen artean baloreak, enpresa ezagutza, esfortzua eta ekimena transmititzea oso garrantzitsua bilakatu da. Kontzeptu hauek, etorkizunean ikasleengan eragina izango dute eta etorkizuneko errealitate horrentzat sentsibilitatuak egon behar dute.

Langileen kualifikazio maila eta lan merkatuaren eskarien artean desberdintasun handiak daudenean langabezia sortzen da. Hau dela eta beharrezkoa da ikasleek ekoizpen prozesua zein den jakitea. Ekimenaren arloan, enpresa kultura garatu behar da, jarrera baikorra azalduz eta autoenplegua bultzatuz. Bizi irauteko, etengabeko formakuntza behar beharrezkoa da, lehiakortasun arazoei irtenbideak bilatzeko eta langabeziaren arazoari aurre egiteko. Azken finean, merkatuaren eskaria geroz eta zorrotzagoa da alor guztietan. Ikasleen artean, enpresa munduan egiten diren ekitaldi desberdinak praktikan jarriko dira. Orokorrean ikasleek ekintza hauetan erantzukizun handia adierazten dute eta hau gizabanakoaren heldutasuna bultzatuko ezinbestekoa da.